

DATUAK BABESTEKO ERREGELAMENDU OROKORRAREN GIDA TRATAMENDUAREN ARDURADUNENTZAT

**DATUAK
BABESTEKO
ERREGELAMENDU
OROKORRAREN
GIDA
TRATAMENDUAREN
ARDURADUNENTZAT**

Aurkibidea

1. SARRERA	4
2 DATU TRATAMENDUA LEGITIMATZEKO OINARRIAK.....	6
3 GARDENTASUNA ETA INTERESDUNAK INFORMATZEA	8
4 ESKUBIDEAK.....	9
4.1 Eskubideak egikaritzeko prozedura.....	9
4.2 Atzipen eskubidea	10
4.3. Ahaztua izateko eskubidea.....	10
4.4 Tratamendua mugatzea	10
4.5 Eramangarritasuna	11
5 ARDURADUNAREN ETA ERAGILEAREN ARTEKO HARREMANA	13
5.1 Eragileen eginbehar espezifikoak.....	13
5.2 Tratamendu-eragilea aukeratzea	13
5.3 Enkargu-kontratuaren edukia	14
6 ERANTZUKIZUN AKTIBOKO NEURRIAK	16
6.1 Arrisku-azterketak	16
6.2 Tratamendu-jardueren erregistroa	17
6.3 Datuen babesa, diseinutik abiatuta eta lehenetsita	18
6.4 Segurtasun neurriak	18
6.5 Jakinaraztea “datuen segurtasun urraketak”	19
6.6 Datu babesaren gaineko eraginari buruzko azterketak	21
6.7 Datuak babesteko ordezkaria.....	23
7 NAZIOARTEKO TRASNFERENTZIAK	26
8 ADINGABEKOEN DATU TRATAMENDUAK	28
9 EGIAZTAPEN ZERRENDA	29
10 EGIAZTAPEN ZERRENDA SINPLIFIKATUA.....	32

1. SARRERA

Datuak Babesteko Erregelamendu Orokor berria (DBEO-Erregelamendua) 2016ko maiatzean argitaratu zuten, **eta 2018ko maiatzetik aurrera nahitaez ezarri beharrekoa izango da**. Orain trantsizio aldian gaudenez, indarrean jarraituko dute 95/46 Zuzentarauko xedapenak eta estatu bakoitzean zuzentaraua garatzen duten arauak. Hala ere, tratamenduaren arduradunek eta eragileek neurriak **prestatzen eta egokitzen hasi behar dute, Erregelamendua ezarri beharrekoa den unerako, bertan aurreikusitako aurreikuspenak betetzeko gai izateko**.

Erregelamendua zuzenean ezarri beharreko araua da, eta ez da behar Estatu barneko transposizio-araurik; eta, gehienetan ez da behar zuzentaraua garatzeko edo ezartzeko araurik ere ez. Horregatik, **tratamenduaren arduradunek argi izan behar dute orain Erregelamendua dela erreferentziako araua eta ez arau nazionalak**, aurreko 95/46 Zuzentaraurekin gertatu izan den bezala. Hala eta guztiz ere, Datu Pertsonalak Babesteari buruzko egungo Lege Organikoa (DBLO) ordezkaturiko duen lege berriak aukera izango du zenbait zehaztapen edo garapen jasotzeko, Erregelamendua uzten badio.

Erregelamenduan jasotako kontzeptu, printzipio eta mekanismo asko 95/46 Zuzentarauak eta zuzentaraua ezartzen duten arau nazionalak orain arte ezarritakoen antzekoak dira. Horregatik, Espainiako DBLOk ezarritakoa zehatz betetzen ari diren organizazioek ondo kokatuta ekingo diote Erregelamendu berria behar bezala aplikatzeko bideari.

Baina, gogoan izan behar da Erregelamendua aldatu egin dituela orain arteko araubidearen alderdi batzuk eta betebeharrak dakartzala, organizazio bakoitzak ezarri behar dituen barneko egoera kontuan hartuta.

Honako bi elementuak dira **Erregelamendua arduradunentzat ekarri dituen berrikuntza orokor aipagarrienak**:

Erantzukizun proaktiboaren printzipioa

Erregelamendua dioenez, erantzukizunaren printzipio proaktiboak agintzen du tratamenduaren arduradunak **arrazoizko neurri tekniko eta antolakuntzakoak hartuko dituela, tratamendua erregelamendu honekin bat datorrela bermatzeko eta frogatu ahal izateko**.

Praktikan, printzipio honek esan nahi du organizazio bakoitzak aztertu behar duela **zein datu tratatzen dituen, zein helbururekin eta zein tratamendu operazio mota egiten dituen**. Hori dakitenean, zehaztasunez jaso behar dute nola ezarriko dituzten Erregelamendua finkatzen dituen neurriak, eta ziurtatu behar dute neurriak egokiak direla Erregelamendua agindutakoa betetzeko eta hala dela frogatu dezaketela bai interesdunen aurrean bai gainbegiratze-agintaritzen aurrean.

Labur esanda, printzipio honek eskatzen die organizazioei **jarrera kontzientea, arduratsua eta proaktiboa edukitzea**, egiten dituzten datu tratamendu pertsonalei dagokienez.

Arriskuaren ikuspegia

Erregelamenduak dio bertan jasotako neurriak bete egiten direla bermatzeko ezartzen diren neurriek kontuan hartu beharko dituztela tratamenduaren **nolakotasuna, eremua, testuingurua eta helburuak, bai eta pertsona fisikoen eskubide eta askatasunetarako tratamenduak izan ditzakeen arriskuak ere.**

Ikuspegi horrekin bat, Erregelamenduak ezartzen dituen neurri horietako batzuk bakar-bakarrik ezarriko dira eskubide eta askatasunetarako arrisku handia dagoenean; beste batzuk, ordea, tratamendu bakoitzak ekar ditzakeen arrisku maila eta arrisku motaren arabera egokituko dira.

Beraz, Erregelamenduan aurreikusitako neurriak organizazioen ezaugarrietara egokitu beharko dira. Izan ere, egokia izan daitekeena erakunde batean, milioika interesdunen datuak darabilelako datu-tratamendu konplexuak egiteko eta ukitu bakoitzari buruzko datu kopuru handiekin edo informazio sentsiblearekin, ez da zertan beharrezkoa izan enpresa txiki batean, datu-tratamenduen bolumen txikia burutzen badu eta erabiltzen dituen datuak ez badira sentsibleak.

Gida honetan era sistematikoan aurkezten dira organizazioek kontuan hartu behar dituzten alderdi garrantzitsuenak Erregelamendua behar bezala aplikatzeko. Beraz, agiriak ez ditu xehetasunak lantzen, eta ez da behin betikoa. Azken finean, gida honen asmoa da laguntzea arduradunei eta eragileei betebeharrak berrietara egokitzen, trantsizio aldiak irauten duen bitartean, 2018ko maiatzera arte. Horregatik, Gidaren bukaera aldean Egiaptapen Zerrenda bat jaso da, organizazioek erabil ditzaten, ikusteko ea urrats egokiak eman dituzten Erregelamendua betetzeko bidean.

Batzuetan Gidak ematen dituen gomendioak edo interpretazioak berehala abian jartzeko modukoak dira, zer ikusi handia dutelako Erregelamendua indarrean sartu zenetik nahitaez ezargarria izango den eguna bitarteko trantsizio aldiaren egin beharreko jarduerekin. Adibidez, jarduera bat da, geroago ere ikusiko dugunez, adostasuna eskuratzeko modua egokitzea.

Beste batzuetan, Gidako gomendioak edo interpretazioak bakar-bakarrik hartu beharko dira kontuan Erregelamendua nahitaez ezarri beharrekoa bihurtzean denean. Baina, guk Gidan sartu ditugu, batez ere, organizazioek poliki-poliki barneratu dezaten neurri batzuk hartu beharko dituztela eta zenbait irizpide ere bete beharko dituztela; eta, horrez gain, azaletik bada ere, Gidak azaldu nahi du nola hasi Erregelamenduko betebeharrak betetzen eta praktikan jartzen legez betebeharrekoa izango den unea heldu baino lehen.

Datuak Babesteko Espainiako Agentzia, Datuak Babesteko Kataluniako Agintaritzak eta Datuak Babesteko Euskal Bulegoa elkarrekin prestatzen ari da Gida hau osatzeko hainbat agiri eta tresna; eta lehenik ere argitaratu izan ditu beste batzuk, sakonago lantzeko Gida honen hainbat atal. Araudi berria abian jartzea helburu duen baliabideen katalogoa zabaltzen jarraitzeko asmoa dugu 2017an eta 2018an. Era berean, Gida eguneratu eta zabaltzeko asmoa ere badugu.

2 DATU TRATAMENDUA LEGITIMATZEKO OINARRIAK

Erregelamenduak bere horretan mantendu du 95/46 Zuzentarauko printzipioa, dioena datu tratamendu orok behar duela legitimatzen duen oinarri bat. Eta 95/46 Zuzentarauko oinarri juridiko berberak gorde ditu, gerora DBLOn ere jaso zirenak:

- Adostasuna
- Kontratu harremana
- Interesdunaren edo beste pertsona batzuen bizi-interesak
- Arduradunari aplikagarria zaion lege-eginbearra
- Interes publikoaren izenean edo botere publikoen izenean izatea
- Tratamendu arduradunaren edo datuak komunikatzen zaizkien hirugarrenen interes legitimo bat lortzea

Alde horretatik begiratuta, Erregelamenduak ez dakar aldaketarik datu tratamenduaren arduradunarentzat.

Kontuan hartu beharrekoak

Dokumentatzea eta identifikatzea zein den tratamendu bakoitzaren lege oinarria

- Ez dago berariaz jasota, baina zenbait artikulutatik eta “erantzukizun proaktiboaren” printzipio orokorretik ondorioztatzen da.
 - **Adierazi egin behar da zein den tratamenduaren lege oinarria**, eta interesdunen datuak biltzen direnean informazioa emateko unean adierazi behar da.
 - **Ondo zehaztu eta dokumentatu behar da zein interes legitimo dauden tratamendu operazioen oinarrian**, bereziki datu babesaren gaineko eraginari buruzko azterketetan edo zenbait nazioarteko transferentzietan.
- **Nahitaez zehaztu behar da lege-oinarria**, Erregelamenduko aurreikuspenak betetzen direla egiaztatzeko.
- **Tratamendu motaren eta organizazioen ezaugarrien arabera egingo dira** identifikazioa eta dokumentazioa.

Adostasunak “zalantzarik gabea” izan behar du

Adostasuna “zalantzarik gabea” izango da interesdunaren **borondate-adierazpen askea bada edo egintza positibo argi batez egina**.

DBLO garatzen duen Erregelamenduan gertatzen zenaren kontrara, orain ez da onartzen isilbidezko adostasuna, horren oinarrian ez-egite bat dagoelako.

- Zenbait egoeratan **adostasunak zalantzarik gabea izateaz gain, berariazkoa ere izan beharko du:**
 - Datu sentzibleen tratamenduak
 - Erabaki automatizatuak hartzea
 - Nazioarteko transferentziak
- Adostasuna **zalantzarik gabea izan daiteke eta modu inplizituan adieraz daiteke**, interesdunaren egintza batetik ondorioztatzen bada (adibidez interesdunak jarraitzen badu web batean nabigatzen, jakinda cookieak erabiltzen dituztela nabigazioa monitorizatzeko).
- **Erregelamendua ezartzen hasi aurretik**, adostasunean oinarrituta hasi ziren tratamenduek legítimoak izaten jarraituko dute, baldin eta Erregelamendua aurreikusitako modu berean adierazi bazuen bere garaian adostasuna, hau da, borondate-adierazpen askea izan bazen edo egintza positibo argi batez egin bazen.

Gomendioak

- **Ez jarraitu isilbidezko adostasuna eskuratzen**, eta halako adostasunean oinarritutako tratamenduak berrikusi, 2018tik aurrera ondo egokituta egon daitezen Erregelamendura.
- Egokitzapena egiteko moduak:
 - **Modu bat da interesdunen adostasuna eskuratzea, Erregelamenduko baldintzen arabera.**
 - **Egokitzeko beste modu bat da aztertzea ea ukitutako tratamenduetarako beste lege oinarri batzuk aurki daitezkeen**, adibidez, tratamenduaren arduradunaren edo datuen lagapen hartzailearen interes legítimo bat egotea eta interesdunen eskubideen gainera egotea (interesdunei horri buruzko informazioa eman beharko zaie eta eskubideak egikaritu ahal izango dituzte, adibidez, datuei aurka egitekoa, baldin eta aukeratu den lege oinarri berriarekiko ezargarria bada).

3 GARDENTASUNA ETA INTERESDUNAK INFORMATZEA

Aldaketak

- Interesdunei esan egin behar zaie zein tratamenduk ukituko dituen eta eskubideak egikaritzuz gero, nola erantzungo dieten. Horretarako eman behar zaien informazioa **laburki, gardentasunez eta erraz ulertzeko eta eskuratzeko eran eta hizkera argia eta erraza erabilia** emango zaie.

(DBLOK, aldiz, dio informazioa berariaz azaldu behar dela, zehatz eta argi)

Betebeharrak

- Ez da erabiliko **esapide ilunik**, ez eta lege testuetara bidaltzen duten esapiderik ere.
- **Informazio klausulek argi eta garbi eta interesdunek behar bezala ulertzeko moduan** azaldu beharko dute berehalakoan zertaz ari diren, interesdunek gaiaz zenbat dakiten kontuan hartu gabe.
- Erregelamenduak zerrenda zehatz bat du interesdunei eman beharreko informazioarekin (gaur egun DBLOK daukana baino zabalagoa), eta beste hauek gehitu ditu:
- Tratamenduaren oinarri juridikoa
- Nazioarteko transferentziak egiteko asmoa
- Datuak Babesteko Ordez kariaren datuak, halakorik badago
- Profilak egitea
- **Informazioa idatziz emango zaie interesdunei**, eta baliabide elektronikoak erabili ahal izango dira egokia denean.

Ikono estandarizatuak

Erregelamenduak dio informazioa argia eta eskuragarria izan behar dela, eta, hala dela ziurtatzeko, aurreikusten du informazioa eman daitekeela ikono estandarizatu batzuekin batera, zeintzuk aurreikusitako tratamenduaren ikuspegi orokorra ematen duten. Europako Batzordeak diseinatu behar ditu ikonoak, eta jadanik lanean ari da proposamen bat aurkezteko.

- ❖ **AEPDk, Datuak Babesteko Kataluniako Agintaritzak eta Datuak Babesteko Euskal Bulegoak informatzeko eskubideari buruzko gida ba prestatu dute. [Hemen dago eskuragarri](#). Trantsizio aldiaren erakunde pribatuentzako jarraibideak ere aurkeztuko dira.**

4 ESKUBIDEAK

Erregelamenduak, betiko AZETA eskubideez gain, beste berri batzuk era jaso ditu. Gainera, herritarren eskubideak egikaritzeko prozedurari buruzko baldintza zehatz batzuk ere ezarri ditu.

4.1 Eskubideak egikaritzeko prozedura

- Oro har tratamenduaren arduradunek eskubideak egikaritzeko aukera eman behar diete interesdunei; eta horretarako prozedurak eta formak ondo ikusteko modukoak, irisgarriak eta errazak izan behar dira.
 - Arduradunek nahitaez eskaini beharko dute aukera eskabideak egiteko baliabide elektronikoen bidez, batez ere tratamendua ere baliabide elektronikoen bidez egin behar bada.
- **Eskubideak egikaritzea doan izango da** interesdunentzat, honako kasuetan izan ezik:
 - Eskabideak argi eta garbi funsgabeak edo neurrigabeak direnean edo bereziki errepikakorrek direnean. Halakoetan arduradunak kanon bat kobratu ahal izango du, informazioa emateak dakartzan kostu administratiboak estaltzeko edo eskabideari uko egin diezaioke (arduradunak ezin izango du kanona erabili diru-sarrerara osagarritzat, eta bat etorri beharko du eskabidea izapidetzeak benetan daukan kostuarekin).

Betebeharrak

- Behar diren prozedurak bideratzea interesdunek ahalik eta errazen egiaztatu ahal izateko euren eskubideak egikaritu dituztela bitarteko elektronikoen bidez (gaur egun ezinezkoa da batzuetan).
- Arduradunak frogatu egin beharko du eskabideak argi eta garbi funsgabeak edo neurrigabeak direla, interesdunak ordaindu beharrekoak direnean.
- Arduradunak **hilabeteko** epea izango du interesdunari azaltzeko bere eskabidearen ondorioz egindako jarduerak (epea bi hilabetekoa izango da **eskabideak oso konplexuak** badira, eta interesdunari epea luzatu dela jakinarazi behako zaio lehenengo hilabetean).
- Arduradunak erabakitzen badu **eskabide bati uko egitea**, interesdunari jakinarazi beharko dio, eskabidea aurkeztu zenetik **hilabeteko** epean.
- Arduradunek neurriak hartu beharko dituzte identitatea egiaztatzeko datuak atzitzeko eskubidea egikaritu nahi dutenei eta gainontzeko AZETA delako eskubideak baliatu nahi dituztenei.
- Interesdun berari buruzko informazio kopuru handia tratatzen duen arduradunak eskatu egin ahal dio interesdunari ondo zehazteko datua atzitzeko eskabidea.

- Arduradunak **tratamendu-eragileen laguntza** izango du interesdunen eskubideak egikaritzeko, eta tratamenduaren enkarguaren kontratuan jasoko du laguntza zertan den.

4.2 Atzipen eskubidea

LEHEN

Ukituaren datu guztiak eman behar ziren, baina ez kopiak edo dokumentuak (historia klinikoa izan ezik).

GERO

Tratatu beharreko datu pertsonalen kopia eskuratzeko eskubidea aitortu da. Atzipen eskubidea.

Kontuan hartu beharrekoak

Arduradunek, datuak atzitzeko eskubidea asebate dezakete, interesdunei urruneko sarbidea eskainiz sistema seguru batean, datuak zuzenean atzitu ditzaten.

4.3. Ahaztua izateko eskubidea

- Ez da eskubide autonomotzat jotzen. Betiko AZETA deritzen eskubideekin zer ikusia du, eta datu pertsonalak **ezabatzeko eskubidea egikaritzearen ondorioa da**.
- Datuak ezerezteko eta datuei aurka egiteko eskubideen agerpen bat da lineako ingurunean (hala dio EBko Justizia Auzitegiak Googleren kasuan ezarritako jurisprudentziak).

Kontuan hartu beharrekoak

- Jurisprudentzia hori egun aplikatzen duten tratamenduaren arduradunek ez dituzte ohiko jardunbideak aldatu beharko.
- Datu pertsonalak publiko egin dituzten arduradunek **neurri teknikoak hartu beharko dituzte beste arduradun batzuei esateko** interesdunak eskabide bat egin duela bere datu pertsonalak ezabatzeko.

4.4 Tratamendua mugatzea

Aldaketak

- Tratamendua mugatzeak esan nahi du, interesdunak eskatuz gero, bere datu pertsonalei ez zaiela tratamendu operaziorik aplikatuko.

Tratamendua mugatzea noiz eskatu daitekeen:

- Interesdunak zuzentzeko edo aurka egiteko eskubideak baliatu baditu eta arduraduna eskabidea onartu ala ez erabakitzen ari den bitartean.
- Tratamendua legez kontrakoa bada, eta, ondorioz, datuak ezabatu behar badira, baina interesdunak ez du nahi.
- Datuak ez badira beharrezkoak tratamendurako, eta, ondorioz datuak ezabatu behar badira, baina interesdunak mugatzeko eskatzen badu, datuak behar dituelako erreklamazioak formulatzeko, egikaritzeko edo aldezteko.
- Tratamenduak mugatuta dirauen bitartean arduradunak datuak gordetzeaz gain, tratatu ere egin ahal izango ditu, baldin eta:
 - Interesdunak adostasuna adierazi badu.
 - Erreklamazioak formulatzeko, egikaritzeko edo aldezten badira.
 - Beste pertsona fisiko edo juridiko baten eskubideak babesteko badira.
 - Batasunaren edo Estatu kide baten interes publikoko arrazoi garrantzitsuak badaude.

Kontuan hartu beharrekoak

- Erregelamenduak dio tratamendua mugatzeko eskubidea **interesdunen eskubide bat dela**, baina ez dela nahastu behar gaur egun Espainiako legedian jasota dagoen datuak blokeatzeko eskubidearekin.
- Eskubide honek dituen **epea eta prozedurak** Erregelamenduko gainontzeko eskubideek dituztenak bezalakoak dira.
- Araudi berri honen ondorioz, ezinezkoa izango da orain arte egiten zen bezala egitea, hau da, datua ezabatzea beste eskubide batzuk egikaritzen zirenean, adibidez, atzipen eskubidea; datuak ezabatuz gero, ezinezkoa izango litzatekeelako tratamendua mugatzeko eskubidea baliatzea.

4.5 Eramangarritasuna

Aldaketak

- Datuen eramangarritasunari buruzko eskubidea da datuak atzitzeko eskubidearen molde aurreratu bat, eta interesdunari eskubidea aitortzen dio datu pertsonalak erabilera orokorra eta irakurketa mekanikoa duen formatu egituratu batean jasotzeko.

Eskubide hau honako kasuetan bakarrik baliatu daiteke:

- Tratamendua bitarteko automatizatuen bidez egiten bada.
- Tratamenduaren oinarrian adostasuna edo kontratu bat badaude.

- Interesdunak eskatzen dituen datuak interesdunak berak eman badizkio arduradunari eta interesdunari berari buruzkoak badira, interesdunaren beraren jardueraren ondoriozko datuak barne.

Kontuan hartu beharrekoak

- Eramangarritasunari buruzko eskubideak esan nahi du interesdunak eskubidea izango duela datu pertsonalak zuzenean **arduradun batengandik beste batengana** transmititzeko, teknikoki posible bada, eta ez dela beharrezkoa izango arduradunak interesdunari bueltatzea, interesdunak beste arduradun bati emateko.

Eskubide hau ezin zaie ezarri:

- Interesdun batek arduradun bati eman dizkion hirugarren pertsonen datuei.
 - Interesdunak eskatzen badu berari buruzko datuen eramangarritasunerako eskubidea ezartzeko, baina arduradunak hirugarren batzuegandik jaso baditu datuok.
-
- ❖ **Datuak Babesteko Europako Agintaritzen Taldeak (29. artikuluko Lan Taldea) eskubide honi buruzko ebazpen bat onartu du, eta eskubidearen azterketa zorrotza egin du. Ebazpena eskuragarri dago [hemen](#).**

5 ARDURADUNAREN ETA ERAGILEAREN ARTEKO HARREMANA

Arduradunek eta eragileek kontuan hartu beharreko 3 berrikuntza daude

5.1 Eragileen eginbehar espezifikoak

LEHEN

95/46 Zuzentarauak eta transposizio lege nazionales batez ere arduradunen jarduera arautzen dute.

GERO

Erregelamenduak, aldiz, **tratamendu-eragileei berriaz zuzendutako eginbeharrak ezartzen ditu.**

Hala ere, tratamenduaren gaineko erantzule nagusia arduraduna izango da, azken finean arduradunak erabakitzen duelako tratamendu bat egotea eta tratamenduaren helburua.

Aldaketak

- Erregelamenduak xedatzen du eragileek eginbehar batzuk dituztela nahitaezkoak, arduradun bati lotzen dien kontratutik haratago doazenak, eta kontrol agintaritzek gainbegiratu ditzaketenak. Adibidez:
 - Tratamendu-jardueren erregistro bat kudeatzea.
 - Egiten dituzten tratamenduei zein segurtasun-neurri ezarri erabakitzea.
 - Datuak babesteko ordezkari bat izendatzea Erregelamenduak aurreikusitako kasuetan.
- Eragileek **jokabide-kodeei atxikitzea dute** edo Erregelamenduan aurreikusitako ziurtapen-mekanismoari atxikitzea.

5.2 Tratamendu-eragilea aukeratzea

LEHEN

DBLO garatzen duen Erregelamenduak ezarri zuen bere garaian tratamendu-eragilea aukeratzeko orduan, arduratsu jokatu behar dela.

GERO

Erregelamenduak dio arduradunak neurriak hartu beharko dituela bermatzeko bertan agindutako moduan egingo duela tratamendua, eta hala dela bermatzeko gai izan beharko da, bai eta eragilea aukeratzeko orduan ere (erantzukizun proaktiboaren printzipioa).

Aldaketak

- Arduradunek **arrazoizko neurri tekniko eta antolakuntzakoak aplikatzeko bermeak eskaintzen dituzten** eragileak aukeratuko dituzte soilik, **tratamendua ondo ezkontzeko Erregelamenduko eskakizunekin**. Eragileek aurreikuspen hori bera bete beharko dute tratamendu-operazioak azpikontratatzan dituztenean beste eragileorde batzuekin.

Gomendioak

- Eragileek edo eragileordeek frogatu nahi badute betetzen dituztela Erregelamenduak eskatzen dituen bermeak, jokabide-kodeei atxikitzea dute edo Erregelamenduan aurreikusitako ziurtapen-mekanismoei atxikitzea.

5.3 Enkargu-kontratuaren edukia

Aldaketak

- Arduradunaren eta eragilearen arteko harremana formalizatu beharko da kontratu edo egintza juridiko baten bidez, zeinak eragilea arduradunarekin lotuko baitu.
- Enkarguaren kontratuaren gutxieneko edukiak zorrotz araututa daude, eta honako alderdiak kontuan hartu behar dira nahitaez:
 - Tratamenduaren xedea, iraupena, izaera eta helburua.
 - Datu pertsonalen mota eta interesdunen kategoriak.
 - Eragileak arduradunaren jarraibide dokumentatuei segituz baino ez ditu tratatuko datu pertsonalak.
 - Arduradunak azpikontratazioak egiteko aldez aurreko baimena, espezifikoa ala orokorra, eman ahal izateko baldintzak.
 - Laguntzea arduradunari, ahal den guztietan, interesdunen eskubideak egikaritzea helburu duten eskabideei erantzuten...

Betebeharrak

Erregelamenduaren ezarpen data (2018ko maiatza) baino lehen bukatutako enkargu-kontratuak egokitu egin beharko dira aipatutako edukiak betetzeko, eta ez du balioko erremisio edo bidalketa orokorrak egitea horiek arautzen dituen Erregelamenduko artikulura.

- ❖ **AEPD, APDCAT eta DBEBk hainbat jarraibide prestatu dituzte honelako kontratuak idazteko. [Hemen ikus daitezke](#). Jarraibideen asmoa da laguntzea arduradunei eta eragileei betebeharrak berrietara egokitzen, trantsizioaldiak irauten duen bitartean, eta Erregelamendua indarrean sartu arte. Gerora, eta Erregelamenduan jasotakoaren**

arabera, Datuak Babesteko Espainiako Agentziak (AEPD) ereduzko klausula batzuk egin ahal izango ditu, eta oraindik sortu gabe dagoen Datuak Babesteko Europako Lantaldeak onartu beharko ditu. Lantaldeak ere egin ahal izango ditu kontratueterako ereduzko klausulak.

6 ERANTZUKIZUN AKTIBOKO NEURRIAK

Erregelamenduak neurrien katalogo bat finkatu du arduradunek —eta batzuetan eragileek ere bai— ezarri beharko dutena, bermatzeko, egiten dituzten tratamenduak ondo ezkontzen direla Erregelamenduarekin, eta hori frogatzeko gai direla.

6.1 Arrisku-azterketak

- Erregelamenduak dio **erantzukizun aktiboko neurriak hartu beharko direla, baina tratamenduek interesdunen eskubideei eta askatasunei ekar diezaieketen arriskuaren araberakoak izan behar direla**. Arriskua bi eratara erabiltzea aurreikusten du:
 - Erregelamenduak dio kasu batzuetan neurriak ezarri beharko direla bakar-bakarrik tratamenduak arrisku handia ekar badiezaieke pertsona fisikoen eskubide eta askatasunei (adibidez, Datu babesaren gaineko eraginari buruzko azterketak).
 - Beste batzuetan, tratamendu bakoitzak ekar ditzakeen arrisku maila eta arrisku motaren arabera egokituko dira neurriak. Horri gertatzen da, adibidez, diseinutik abiatutako datuak babesteko neurriekin edo segurtasun neurriekin.

Betebeharrak

- Arduradun guztiek egin beharko dute egiten dituzten tratamenduen gaineko arrisku-balorazioa, horren arabera erabakitzeke zein neurri ezarri eta nola. Azterketa mota aukeratzeko, honakoak hartu beharko dira kontuan:
 - Tratamendu motak.
 - Zein datu mota tratatuko den.
 - Ukitutako interesdun kopurua.
 - Erakunde berak egiten duen tratamendu kopurua eta motak.

Organizazio handiak: arau orokorra da, arrisku-azterketak egiteko, arriskua aztertzeke metodologietako bat erabili beharko dela.

Organizazio txikiak, oso konplexuak ez diren tratamenduekin: arrisku azterketa egiteko, tratamenduek pertsonen eskubideetan eta askatasunetan izango duten eraginari buruzko hausnarketa egin beharko da, eta labur bada ere, dokumentatu egin beharko da. Hausnarketak ondoko galderak erantzun beharko ditu. Zenbat eta baiezko erantzun gehiago, orduan eta handiagoa izango da tratamenduaren ondoriozko arriskua. Galdera hauei edo antzekoei ezetz erantzunez gero, zentzuzkoa da pentsatzea organizazioak ez dituela arrisku handiko tratamenduak egiten, eta, beraz, ez ditu abian jarri behar arrisku egoeretarako aurreikusita dauden neurriak.

- Datu sentisibileak dira?
- Pertsona kopurua handiari buruzko datuak dira?

- Tratamenduak profilak egitea ere hartzen du?
 - Interesdunarengandik jasotako datuak beste iturri batzuetan eskuragarri dauden datuekin gurutzatuko dira?
 - Helburu baterako eskuratutako datuak beste helburu mota batzuetarako erabili nahi dira?
 - Datu kopuru handia tratatzen ari dira, *big data* erako azterketa masiboko teknikak barne?
 - Pribatutasunean eragin handia duen teknologia motak erabiltzen dira, adibidez, geolokalizazioa, eskala handiko bideo zaintza edo Gauzen Interneteko zenbait aplikazio?
- ❖ **AEPD materialak prestatzen ari da enpresa txiki eta ertainei (ETE) laguntzeko Erregelamenduaren agindu berrietara egokitzen; batez ere laguntzeko egiten hasiera batean arrisku handikoak ematen ez duten tratamenduen arriskuen balorazio-prozesuak.**

6.2 Tratamendu-jardueren erregistroa

Betebeharrak

- **Arduradunek eta eragileek tratamendu-operazioen erregistro** bat kudeatu beharko dute. Erregistroak jaso beharko du Erregelamenduak agindutako informazio guztia. Informazioak honakoa jaso beharko du:
 - Arduradunaren izena eta harremanetarako datuak, eta, hala badagokio, tratamenduaren erantzukidearena, bai eta datuak babesteko ordezkariarenak ere, baldin badago.
 - Tratamenduaren helburuak.
 - Interesdun-kategorien eta tratatutako datu pertsonalen kategorien deskribapena.
 - Nazioarteko datu transferentziak
- **Salbuetsita daude 250 lagun baino gutxiago dituzten organizazioak**, salbu eta tratamenduak arriskurik ekar badezake interesdunen eskubide eta askatasunetarako, ez bada noizbehinkakoa edo datu-kategoria bereziak baditu edo kondena eta arau-hauste penalei buruzko datu pertsonalak baditu.

Gomendioak

- **Tratamendu-jardueren erregistroak antolatzeko hainbat modu daude:**

- Aukera bat da abiatzea arduradunek Datuak Babesteko Erregistro Nagusian egun erregistratuta dituzten fitxategietatik, ondo zehaztuz datu multzo egituratu bakoitzari buruz egiten diren operazio guztiak.
 - Beste aukera bat da hainbat tratamendu-operazio hartzea abiapuntutzat, guztiak oinarrizko helburu komun berarekin (adibidez, “bezeroen kudeaketa”, “kudeaketa kontablea” edo giza baliabideen eta nominen kudeaketa”), edo beste irizpide batzuen arabera.
- ❖ **Arduradunei jarduera-erregistroak eratzten laguntzeko asmoz, AEPDk, APDCATEk eta DBEBk ahalbideratuko dute, Erregelamenduaren ezarpen data baino lehen, arduradunen eskura izatea modu automatizatuan, Datuak Babesteko Erregistro Nagusiari euren fitxategiei edo tratamenduei buruz jakinarazi dioten informazio guztia.**

6.3 Datuen babesa, diseinutik abiatuta eta lehenetsita

Arduradunak neurri hauek bete beharko ditu, beste batzuekin batera, **tratamendua hasi aurretik eta tratamenduak dirauen bitartean ere bai.**

Halako neurriek oso ondo erakusten dute zein den erantzukizun proaktiboaren ikuspegia. Kontua da **datu-babesa kontuan hartzea tratamendu bat edo produktu edo zerbitzu bat diseinatzen den unean**, datu pertsonalen tratamendua ekarriko badu.

Betebeharrak

- Tratamendu-arduradunek hasiera-hasieratik **hartu behar dituzte arrazoizko neurri tekniko eta antolakuntzakoak** tratamenduetan txertatzeko Erregelamendua modu eraginkorrean ezartzeko bermeak.
- Tratamendu-arduradunek **neurriak hartu beharko dituzte bermatzeko beharrezko datuak baino ez direla tratatuko** datu kopuruari, tratamenduaren hedadurari eta kontserbazio epeei eta datuen irisgarritasunari dagokienez.

6.4 Segurtasun neurriak

LEHEN

DBLO garatzen duen Erregelamenduak ondo eta zehatz finkatuta zeuzkan zein segurtasun-neurri ezarri behar ziren, tratatu beharreko datu mota kontuan hartuta.

DBLO garatzen duen Erregelamenduko neurriek batez ere datu mota hartzen zuten kontuan eta horretan oinarritzen ziren, eta asko jota tratamenduen testuinguruari buruzko aipamenen bat egiten zuten.

ORAIN

DBEO-Erregelamenduak dio arduradunek eta eragileek arrazoizko neurri tekniko eta antolakuntzakoak ezarriko dituztela segurtasun maila egokia bermatzeko, hau da, alde zuzeneko azterketak antzemandako arriskuen arabera.

Erregelamenduak dio aldagai gehiago hartu behar direla kontuan.

Kontuan hartu beharrekoak

- **Neurri teknikoak eta antolakuntzakoak** finkatzeko, honakoak hartuko dira kontuan:
 - Puntako teknologiaren kostua.
 - Aplikazioen kostuak.
 - Tratamenduaren nolatasuna, helmena, testuingurua eta helburuak.
 - Eskubide eta askatasunetarako arriskuak.
- DBLO garatzen duen Erregelamenduan finkatutako segurtasun neurrien eskema **ez du balio automatikoa** izango Erregelamenduaren ezarpen dataz geroztik.
- **Kasu batzuetan arduradunek jarraitu ahal izango dute DBLO garatzen duen Erregelamenduak xedatutako neurriak ezartzen**, arrisku-azterketa egin eta gero, ateratzen den ondorioa bada neurriak aproposak direla segurtasun maila egokia emateko. Beste batzuetan, neurri osagarriak gehitu beharko dira edo neurri batzuk kendu.

6.5 Jakinaraztea “datuen segurtasun urraketak”

Erregelamenduak oso modu zabalean definitzen du zer den “datu pertsonalen segurtasuna urratzea”: **transmititutako, kontserbatutako edo beste moduren batez tratatutako datu pertsonalak ustekabea edo legez kontra suntsitzea, galtzea edo aldatzea, edo datuok baimenik gabe lagatzea edo irispidean jartzea**. Erregelamenduaren argitan honako gertaera hauek segurtasun-urraketak dira eta Erregelamenduak xedatzen duen bezala tratatu beharko dira: ordenagailu eramangarria galtzea, baimenik gabeko sarbideak organizazio bateko datu-baseetara (organizazioko langileek egindakoak barne) edo nahi gabe ezabatzea erregistroak.

Betebeharrak

- **Datuen segurtasun-urraketaren bat gertatzen denean, arduradunak urraketa jakinarazi beharko dio datuak babesteko agintaritzari, ez bada urraketak arrisku handirik ez diela ekarriko pertsona fisikoen eskubideei eta askatasunei.**
- Segurtasun-urraketa atzerapen bidegabekeri gabe jakinarazi beharko zaizkie agintaritzari, eta, ahal bada, arduradunak urraketaren berri izan eta hurrengo 72 orduetan.
- Jakinarazpenak honakoak jaso beharko ditu:
 - Urraketaren izaera.

- Datuen kategoriak eta ukitutako interesdun motak.
- Arduradunak hartutako neurriak, urraketa konpontzeko.
- Arduradunak hartutako neurriak, urraketak interesdunengan eragin ditzakeen ondorioak hain kaltegarriak ez izateko, bidezkoak badira.
- **Arduradunek segurtasun-urraketa guztiak dokumentatu behar dituzte.**
- **Segurtasun-urraketek arrisku handia ekar badiezaiekete pertsona fisikoen eskubide eta askatasunei, gainbegiratze-agintaritzari egin beharreko jakinarazpenaz gain, beste bat egin beharko zaie interesdunei.**
- **Interesdunei egin beharreko jakinarazpenaren xedea** da urraketek ekar ditzaketen ondorioetatik babestu ahal izateko neurriak hartzea. Horregatik dio Erregelamenduak jakinarazpena atzerapen bidegaberik gabe egin behar dela, aipatu ere egin gabe noiz izan den urraketa berri eta jakinarazpena egiteko 72 orduko epea dagoela. Lortu nahi dena da interesdun ukituak ahalik eta azkarren erreakzionatzea.
- Erregelamenduak dioenez, jakinarazpenaren edukiei gehituko zaizkie interesdunek har ditzaketen neurriei buruzko hainbat gomendio, segurtasun-urraketa ondo ondo aurre egiteko.

Kontuan hartu beharrekoak

- **Segurtasun-urraketa balorazioa gauza bat da eta beste bat da tratamenduen aurretik egin behar den arriskuaren alde aurreko azterketa.** Kontua da jakitea, urraketa nolakoa izan den ikusita, zenbaterainoko kaltea egin dezakeen edo zein ondorio eragin dezakeen segurtasun-urraketa interesdunen eskubide edo askatasunetan.
- **Kalteak materialak ala inmaterialak izan daitezke:** gerta daiteke baten batek baimenik gabe datuak bidegabe atzitzea eta ukituak diskriminatzea, identitatea faltsutzea, kalte ekonomikoa jasatea edo datu konfidentzialak jendaurrean agertu direla jasan beharra.
- **Segurtasun-urraketa bat gertatu dela seguru jakiteko,** ziur jakin behar da urraketa gertatu dela eta jakin egin behar da nolakoa izan den eta zenbaterainokoa.
- Nahiz eta **segurtasun-urraketa bat gertatu dela sumatu** edo seguru jakin benetan egon dela segurtasun gorabeheraren bat, jakin ezik ondo nolakoa izan den, urraketa ez da jakinaraziko, baldintza horietan gehienetan ezinezkoa delako zehaztea ea benetan dagoen arriskurik interesdunen eskubide eta askatasunetarako.
- **Segurtasun-urraketa ezaugarriak ikusita, interesdunengan eragin handia izan dezakeela aurreikusten bada,** gomendagarria izan daiteke, datuen segurtasunaren inguruan gorabeheraren bat gertatu dela jakin bezain pronto, jartzea harremanetan gainbegiratze-agintaritzarekin. Eta hasierako hartu emanaren ostean, jakinarazpen formalago bat ere egin ahal izango da legez ezarritako epearen barruan.
- Batzuetan **gerta daiteke jakinarazpena ezin dela egin 72 orduko epean,** adibidez, oso zaila delako zehaztea zein den benetan urraketa helmena. Halakoetan zilegi da

jakinarazpena geroago egitea, azalpen batekin, ondo azalduz zergatik jakinarazi den beranduago.

- Informazioa **pixkanaka ere eman daiteke**, ezinezkoa bada jakinarazpenaren unean egitea.
- **Arrisku handiak** esan nahi du seguruenez segurtasun-urrietak kalte handia ekarriko diela interesdunei. Hona adibide batzuk: informazio konfidentziala zabaltzen bada (pasahitzak edo zenbait jardueretan parte hartu izana), datu sentzibleak hedatzen badira modu masiboan edo ukituentzako kalte ekonomikoak ekar baditzakete.
- **Interesdunei ez zaie jakinarazpenik bidaliko** baldin eta:
 - Arduradunak arrazoizko neurri tekniko eta antolakuntzakoak erabili baditu segurtasun-urrietak gertatu aurretik, bereziki, hirugarrenek datuok ez ulertzeko moduko neurriak: zifratua, esaterako.
 - Arduradunak arrazoizko neurri tekniko eta antolakuntzakoak hartu baditu eta bermatzen badute ezinezkoa dela arrisku handia benetan gauzatzea.
 - Segurtasun-urrietak jakinarazteko neurri kanpoko ahalegina egin behar bada. Kasu horretan, horren ordez komunikazio publiko bat edo antzeko neurriren bat aukeratu da.

❖ **Bere garaian AEPDk kanal bat ezarri zuen komunikazio elektronikoaren esparruan gertatzen ziren segurtasun urrietak jakinarazteko, eta jakinarazpenak egiteko obligazioa zuen kasu bakarra zen, hala egin behar zela xedatzen zutelako 2002/58 Zuzentarauak eta transposizio lege nazionalak. AEPDk kanal hori egokituko du Erregelamendua ezarri arteko trantsizioaldian, eta kanala erabili ahal izango da Erregelamenduaren esparruan gertatzen diren segurtasun-urrietak komunikatzeko.**

Era berean, 29. artikuluko Lan Taldea Europar Batasuneko inprimaki eredu bat prestatzen ari da, alde batetik, arduradunei laguntzeko Erregelamenduaren irizpideen arabera jakinarazpenak osorik egiten, eta, bestetik, jakinarazpenak antzera egiteko Europar Batasun osoan.

6.6 Datu babesaren gaineko eraginari buruzko azterketak

Betebeharrak

- **Tratamendu arduradunek datu babesaren gaineko eraginari buruzko azterketak** egin beharko dituzte tratamenduak abian jarri aurretik, ia seguru bada tratamenduek arrisku handia ekar diezaiketela pertsona fisikoen eskubide eta askatasunei.
- Erregelamenduak finkatu du zein den **datu babesaren gaineko eraginari buruzko azterketen gutxienezko edukia**, baina ez du jaso azterketak egiteko metodologiarik. 2014an AEPDk [azterketei buruzko gida](#) bat argitaratu zuen. Gida hori eguneratu eta argitaratu egingo da trantsizioaldian, Erregelamenduaren berrikuntzak jasotzeko.

- Erregelamenduaren ezarpen data baino lehen hasitako tratamenduei buruzko arrisku azterketak egiten badituzte organizazioek, eta erakusten badute tratamendu horiek arrisku handia ekar diezaieketela interesdunen eskubide eta askatasunei, arduradunek tratamendu horiei buruzko datu babesaren gaineko eraginari buruzko azterketa bat (DBEA) egin beharko dute, tratamendu horiek Erregelamenduaren eskakizunetara ondo egokitzeko.
- Datu babesaren gaineko eraginari buruzko azterketek (DBEA) **arrisku handiren bat antzematen badute, eta tratamenduaren arduradunak uste badu ezin izango dela gutxitu eskura duen teknologia, eta hura erabiltzeko kostua kontuan hartuta, halakoetan arduradunak datuak babesteko agintaritza eskumendunari kontsultatu beharko dio.** Kontsultarekin batera, Erregelamenduak aurreikusten duen dokumentazioa aurkeztu beharko da, eraginari buruzko azterketak barne; eta gainbegiratze-agintaritzak gomendioak eman ahal izango ditu, edo Erregelamenduak esleitutako bestelako botereak egikaritu, bai eta tratamendu-operazioa debekatu ere.

Kontuan hartu beharrekoak

- **Ondoko zerrendan jaso dira ustez arrisku handia dakarten tratamendu batzuk:**
 - Profilak egitea, zeina oinarri hartuta pertsona fisikoentzako ondorio juridikoak dituzten erabakiak hartzen baitira edo antzerako eragin esanguratsuak sortzen baitira.
 - Datu sentisibleen eskala handiko tratamenduak.
 - Sarbide publikoa duen zonalde baten behaketa sistematikoa, eskala handian.
- Tratamendu bat eskala handikoa den baloratzeko, honakoak hartu behar dira kontuan (29. artikuluko Lan Taldeak hala xedatu du datuak babesteko ordezkaria izendatzeko):
 - Ukitutako interesdunen kopurua, balio absolutuen arabera edo populazio kopuru jakin baten portzentajearen arabera.
 - Datuen bolumena eta tratatutako datu barietatea.
 - Tratamendu-jardueraren iraupena.
 - Tratamendu-jardueraren hedapen geografikoa.
- **Datuak babesteko agintaritzek nahitaez egin beharko dituzte datu babesaren gaineko eraginari buruzko azterketa (DBEA) behar duten tratamenduen zerrenda osagarriak.** AEPDk, APDCATEk eta DBEBk Erregelamendua ezarri aurretik egingo dute zerrenda, Datuak Babesteko Europako Lantaldea izango denak onartu behar duelako. Erregelamenduaren ezarpen data eta gero eratuko dute Lantaldea.
- Aurreikusita dago ere bai, **eraginari buruzko azterketarik (DBEA) behar ez duten tratamenduen zerrenda egitea.** AEPDk, APDCATEk eta DBEBk zerrenda egingo dute, eraginari buruzko azterketa eskatzen duten tratamenduei dagozkien baldintza berberak erabiliz.

- **Zerrendak dauden arren, gerta daiteke arduradunek arrisku azterketa egin behar izatea**, eta uste badute arrisku handia dagoela pertsona fisikoen eskubide eta askatasunetarako, eraginari buruzko azterketa (DBEA) bat egin ere behar izatea, nahiz eta tratamendua ez egon jasota zerrenda bi horietako batean ere ez. Esan bezala, Erregelamenduaren oinarrian dago arduradunaren erantzukizun aktiboaren printzipioa; azken finean, arduradunak erabaki behar du zein neurri ezarri eta nola. Esan behar da gainbegiratze-agintaritzen esku hartzeek edo Erregelamenduaren aurreikuspenek argitu eta zehaztu egiten dituztela xedapenok, baina ez dute ordezkaten datuak tratatzen dituztenen erantzukizuna.
- Zilegi da eraginari buruzko azterketa (DBEA) bakarra egitea antzeko arrisku handiak ekar ditzaketen antzeko tratamendu sorta bati.
- Gerta daiteke beste azterketa bat egin behar izatea **tratamenduaren baldintzak edo tratamenduak dakartzan arriskuak aldatu direlako**.
- ❖ **Erregelamenduak berariaz aurreikusitako zerrendak alde batera utzita, AEPDk, APDCATEk eta DBEBk tresna batzuk argitaratu beharko dituzte trantsizio aldiaren enpresei laguntzeko zehazten ea eraginari buruzko azterketa (DBEA) egiteko premiarik duten.**

29. artikuluko Lan Taldea ere irizpen bat prestatzen ari da, 2017ko lehenengo hiruhilekoan argitaratzekoa, eta bertan azalduko du zer den arrisku handiaren kontzeptua, eraginari buruzko azterketak (DBEA) egiteko obligazioaren esparruan.

6.7 Datuak babesteko ordezkaria

Betebeharrak

- Erregelamenduak, **datuak babesteko ordezkariaren (DBO) figura finkatu du, eta nahitaezkoa izango da** honakoetan:
 - Agintaritza eta erakunde publikoak.
 - Tratamenduaren arduradunak edo eragileak, baldin eta euren jarduera nagusien ondorioz, beharrezkoa bada interesdunen eskala handiko ohiko behaketa sistematikoa egitea.
 - Tratamenduaren arduradunak edo eragileak, baldin eta euren jarduera nagusien artean datu sentzibleen eskala handiko tratamenduak badaude.
- Datuak babesteko ordezkaria izendatzeko, **haren trebetasun profesionalak hartuko dira aintzat, bai eta, bereziki, legediaz duen jakintza eta datu-babesaren alorrean duen praktika**. Horrek ez du esan nahi DBOk berariazko titulazio jakin bat eduki behar duenik. DBOren eginkizunetako bat da arduradunari edo eragileari aholkularitza ematea datu babesari buruzko araudiaren gaineko kontu guztietan. Beraz, ezagutza juridikoa funtsezkoa da. Baina, esparru juridikotik kanpoko bestelako ezagutzak ere beharrezkoak

dira, esate baterako, datu-tratamenduei aplikatutako teknologien esparrukoak edo DBOk lan egiten duen organizazioaren jardute esparruari buruzkoak.

- **Arduradunek eta eragileek publiko egin beharko dute** DBOren izendapena **eta berarekin harremanetan jartzeko datuak, eta gainbegiratze-agintaritza eskumendunei komunikatu beharko diete.**
- DBOk bere lekua behar du organizazioetan, eta **ezarrita dagoenez, honako ezaugarriak** izango ditu:
 - Inongo loturarik gabe beteko ditu bere eginkizunak.
 - Harremanetan egon beharko du zuzendaritza-maila gorenarekin.
 - Arduradunak eta eragileak nahitaez eman behar diote DBOri bere jarduera burutzeko behar dituen baliabide guztiak.

Kontuan hartu beharrekoak

- **Enpresa-talde batek DBO bakar bat izendatu ahalko du,** baldin eta erraza bada berarengana iristea taldeko establezimendu bakoitzetik. Irigarritasunaren kontzeptua zentzu zabalenean ulertu behar da. Irigarritasunak esan nahi du enpresa-taldeko langileek modu fisikoa izan behar dutela DBOrengan iristeko, eta interesdunek aukera izan behar dutela euren hizkuntza erabiltzeko DBOrekin harremanetan jartzeko, DBO beste Estatu kide batean dagoen establezimendu bati atxikita badago.
- AEPDk erabaki du datuak babesteko profesionalen ziurtapen sistema bat sustatzea, tresna egokia izango delakoan ebaluatzeko ea DBOren lanpostuetara aurkezten diren hautagaiek badituzten eskatzen diren kualifikazio profesionalak eta ezagutzak. Egiaztatze Erakunde Nazionalak behar bezala kreditatutako ziurtapen-erakundeek emango dituzte ziurtapenak, eta, horretarako, erabiliko dituzte AEPDk, ukitutako sektoreekin lankidetzan, egindako ziurtapen eta egiaztatze irizpideak.
- Ziurtapena ez da nahitaezkoa izango lanbidean sartzeko. Arduradunek eta eragileek izango duten tresna bat da, **lagungarria Datuak babesteko ordezkariaren lanpostua betetzeko profesionalak aukeratzeko.** Baina, arduradunek eta eragileek beste baliabide eta bitarteko batzuk har ditzakete kontuan datuak babesteko ordezkarien gaitasuna egiaztatzeko.
- Arduradunen edo eragileen eta DBOren artean **lan harreman bat egon daiteke ala zerbitzuen kontratu bat.** Hau da, Erregelamenduak bide ematen du DBOren zerbitzua pertsona fisikoekin kontratatzeko ala organizaziotik kanpo pertsona juridikoekin.
- DBOk **lanaldi osoa ala partziala** izan dezake. Lanaldi partzialean arituko bada, komeni da interes-gatazkak ekiditea. Gatazkak gerta daitezke DBOk gainbegiratu behar dituen organizazioak burututako tratamendu-jarduerak, eta hori egiteko, aldi berean berak organizazioan egindako lana baloratu behar duenean. Horren adibide bat izan daiteke informazioaren teknologien arduraduna izendatzea datuak babesteko ordezkari izateko (jakinda informazioaren teknologiak datu-tratamenduak egiteko erabiltzen direla), edo

negozio-arlo baten arduraduna izendatzea ordezkari, jakinda berak hartzen dituela zenbait datu-tratamenduri buruzko erabakiak.

- Erregelamenduak **DBOren eginkizunen katalogoa** ere aurreikusten du, eta eginkizun batzuen artean dago DBO izan behar dela interesdunekiko harremanetarako gunea, datu pertsonalen tratamenduarekin zer ikusi duten kontu guztietarako.
- ❖ **29. artikuluko Lan Taldeak datuak babesteko ordezkariak (DBO) izendatzeari buruzko irizpen bat argitaratu du [\(ikusi hemen\)](#), eta DBOren figurari buruz maiz egiten diren galderen atal bat ere badu.**

7 NAZIOARTEKO TRANSFERENTZIAK

Erregelamenduak diseinatu duen nazioarteko transferentzien ereduak bere horretan jarraitzen ditu 95/46 Zuzentarauak eta transposizio lege nazionales ezarritako irizpideak.

Betebeharrak

- **Datuak Europako esparru ekonomikotik kanpora komunikatzeko bete beharreko baldintzak:**
 - Herralde, lurralde edo sektore espezifikoetara komunikatu ahal izango dira (Erregelamenduak nazioarteko organizazioak ere aipatzen ditu), Batzordeak erabaki badu behar bezalako babes-maila bermatzen dutela.
 - Datuek destinoan jasoko duten babesari buruzko berme egokiak eman badira.
 - Babes egokiaren bermerik ez dagoenean datuak transferitzea baimentzen duten salbuespenetako bat ezartzen bada, baina datuen titularraren interesei edo interes orokorre lotutako arazoak daudelako.

Kontuan hartu beharrekoak

Egun nazioarteko transferentziak egiten ari diren edo Erregelamenduaren esparruan nazioarteko transferentziak egingo dituzten arduradunek eta eragileek kontuan hartu beharrekoak:

- Erregelamendua ezarri aurretik Batzordeak hartutako **egokitzapen-erabakiak** baliokoak izango dira berdin-berdin, eta, beraz, erabaki horietan oinarritutako transferentziak ere berdin egingo dira, harik eta Batzordeak erabakiak ordezkatu edo indargabetu arte.
- Berdin balioko dute Batzordearen erabakiek, **klausula ereduak finkatzen dituztenak**, nazioarteko transferentzietarako bermeak ezartzen diren **kontratuetarako**, harik eta Batzordeak erabakiak ordezkatu edo indargabetu arte.
- Berdin balioko dute **transferentzia baimenek**, datuak babesteko agintaritzak nazionales, hitzarmenetako baldintzetan jasota zegoen bermean oinarrituta emandakoek, harik eta agintaritzek indargabetu arte.
- Esportatzaileek eman beharko dituzte datuek destinoan jasoko duten babesari buruzko bermeak. Arduradunak ala eragileak izan daitezke.
- Zabaldu egin da **bermeak emateko egon daitezkeen tresnen zerrenda**, eta berariaz gehitu dira honakoak: arduradunentzako eta eragileentzako arau korporatibo lotesleak, portaera-kodeak eta ziurtapen-eskemak, bai eta datuak babesteko agintaritzek onar ditzaketen kontratuetarako ereduak klausulak ere.
- **Arau korporatibo lotesleak, kontratuetarako klausula estandarrik, portaera kodeak eta ziurtapen eskemak** daudenean, transferentziak ez du beharko gainbegiratze-agintaritzaren baimenik.

- Salbuespen bat gehitu da 95/46 Zuzentarauak bere garaian ezarri zuen zerrendan. Aukera ematen zaio arduradunari behar adinako babes mailarik gabeko herrialde batera datuak transferitzeko, transferentzia beharrezkoa bada arduradunaren interes legitimo larriak asetzeko eta errepikakorra ez bada eta interesdun kopuru mugatu bati baino ez badio eragiten. Edozelan ere, transferentzia egin ahal izango da non eta aurreko interes horien gainean ez dauden interesdunaren interesak edo eskubideak eta askatasunak. Datuak babesteko agintaritzari komunikatu behar zaio transferentzia.

8 ADINGABEKOEN DATU TRATAMENDUAK

Erregelamenduak hainbat tokitan aipatzen ditu adingabeen datu tratamenduak:

- Tratamenduaren lege oinarria arduradunaren interes legitimoa dela dioen atalean aipatzen du, eta hor dio interes legitimoa ezin izango dela aplikatu non eta interes horren gainean ez dauden datu pertsonalen babesa eskatzen duten interesdunaren interesak edo oinarrizko eskubide eta askatasunak, bereziki interesduna haur bat denean.
- Beste atal batean aipatzen du nola eman interesdunei tratamenduari buruzko edo eskubideak egikaritzeari buruzko informazioa: laburki, gardentasunez eta erraz ulertzeko eta eskuratzeko eran eta hizkera argia eta erraza erabiliz, batez ere hurrei zuzendutako informazioa denean.
- Datu pertsonalak ezabatzeari buruzko atalean.
- Hurrei zuzendutako prestakuntza eta sentsibilizazio jarduerak datuak babesteko agintaritzen lehentasunen artean egon behar dutela aipatzen duen atalean.
- Erregelamenduaren gogoeten edo kontuan hartzekoen atalean profilak egiteari buruz ari denean.

Kontuan hartu beharrekoak

- Erregelamenduak adingabeak argi eta garbi aipatzen ditu (Erregelamenduaren terminologiak haur hitza darabil) **adingabeen adostasuna eskuratzeaz ari den ataletan, informazioaren gizarteko zerbitzuak hurrei (Erregelamenduaren terminologiak haur hitza darabil) zuzenean eskaintzea dela eta**. Erregelamenduak aurreikusten du testuinguru horretan **adostasunak bakar-bakarrik balioko duela 16 urtetik aurrera**, eta adin horretatik behera gurasoen edo legezko tutoreen baimena beharko dela.
- Baina, **Estatu kideek adin txikiago bat ezar dezaketela dio helburu horiei begira, betiere adin hori 13 urtez azpikoa ez bada**. Seguruena izango da Estatu kide gehienek baliatzea aukera hori, eta bakoitzak bere araudia ezartzea. Espainian DBLO garatzen duen Erregelamenduak dio adingabeen adostasuna baliokoa dela orokorrean 14 urtetik aurrera. Horregatik, pentsatzekoa da DBLO ordezkaturiko duen arauak ere gai hau berariaz arautuko duela.

Betebeharrak

Erregelamenduak dio tratamenduaren arduradunak arrazoizko ahaleginak egingo dituela, eskuartean dagoen teknologia kontuan hartuta, egiaztatzeko, ezartzen den adin mugatik beherako adingabeen kasuan adostasuna eman duena haurraren gaineko guraso-ahalaren edo tutoretzaren titularra dela (berez ez ba obligazio bat, baina balio du bitarteko edo arrazoizko prozedura bezala, jakiteko gurasoek edo tutoreek benetan esku hartu dutela).

9 EGIAZTAPEN ZERRENDA

Egiaztapen zerrendaren xedea da organizazioei laguntzea era ordenatuan egiten euren egoeraren balorazioa, Erregelamenduaren obligazio garrantzitsuenen aurrean. Egiaztapen zerrenda Gida honen bukaeran dago jasota. Galdera segida bat da, arduradunek eta eragileek euren buruei egin eta erantzun beharrekoa, jakiteko zein de euren egoera Erregelamenduren aurrean.

Legitimazioa

- Argi finkatuta duzu zein den egiten dituzun tratamenduen lege oinarria, eta dokumentatu duzu zeren arabera finkatu duzun?
- Egiten duzun tratamenduren baten oinarrian interesdunen adostasuna badago, egiaztatu al duzu ea adostasunak betetzen dituen Erregelamenduak eskatzen dituen eskakizunak? Eskakizunak bete ezean, pentsatu duzu nola eskatuko duzun adostasuna Erregelamenduaren eskakizunak betetz, ala beste lege oinarri egoki bat aurkitu duzu?

Informazioa eta eskubideak

- Interesdunei informazioa emateko modua argia, zehatza, gardena eta irisgarria da?
- Informazioak Erregelamenduan jasotako puntu guztiak ditu?
- Eskubidea baliatzeko dituzun prozedurak ikusteko modukoak, irisgarriak eta errazak al dira? Eskubideak bitarteko elektronikoko bidez egikaritu daitezke?
- Ezarrita dituzu prozedurak edo mekanismoak egiaztatzeko atzipen eskubidea edo gainontzeko AZETA eskubideak baliatu nahi dituztenen identitatea?
- Ezarri al dituzu prozedurak eskubideei behar bezala erantzuteko Erregelamenduak ezarritako epeetan? Baloratu al duzu ea eragileen laguntza behar duzun interesdunen eskabideei erantzuteko? Baietz erabaki baduzu, enkargu-kontratuetan lankidetzaz jasotzea aurreikusitako duzu?
- Aurreikusita duzu tratamendua mugatzeko eskabiderik egonez gero, horiek atzenditzeko mekanismorik, baina ukitutako datuak gordeta edukitzeko, berez dagozkien tratamendu-operazioetan erabili gabe?
- Aztertu duzu ea egiten dituzun tratamenduei eramangarritasun eskubidea dagokien? Erantzuna baietz bada, aurreikusita daukazu prozedura edo mekanismorik eskabideari aurre egiteko eta interesdunari (edo beste arduradun bati) datuak emateko, erabilera orokorra eta irakurketa mekanikoa duen formatu egituratu batean?

Arduradunaren eta eragilearen arteko harremanak

- Aurreikusita duzu nola baloratuko duzun ea tratamendu-operazioak egiteko kontratatu edo kontratatuko dituzun eragileek betetzen dituzten Erregelamendua betetzeko bermeak, Erregelamendua bete beharrekoa denean?
- Egun izenpetuta dituzun kontratuek jasota dituzte Erregelamenduak eskatzen dituen elementu guztiak? Erantzuna ezetz bada, Erregelamendua ezarri aurretik egokitzeko urratsak ematen ari zara?

Erantzukizun proaktiboko hainbat neurri

- Baloratu al duzu egiten dituzun tratamenduek zein arrisku ekar diezaiaketen herritarren eskubide eta askatasunei? Erabaki al duzu erantzukizun proaktiboko zien neurri ezarri behar zaizkion zure arrisku egoerari eta nola ezarri behar dituzun?
- Erabaki al duzu nola ezarri tratamendu-jardueren erregistroak zure erakundeetan?
- Aztertu al duzu ea salbuespen batik ezarri ahal zaizun? Erabaki al duzu nork mantenduko duen erregistroa eguneratuta?
- Berrikusi dituzu zure tratamenduei ezartzen dizkiezun segurtasun neurriak, tratamenduei buruzko arrisku azterketaren emaitzak ikusi eta gero? Uste duzu DBLO garatzen duen Erregelamenduan jasotako neurriak ezartzen segitu dezakezula? Ondo aztertu duzu merezi duen ala ez neurri osagarriak gehitzea, egiten dituzun tratamendu motak edo tratamenduen testuingurua ikusita?
- Egiten dituzun tratamenduak ikusita, ezarri duzu mekanismorik datuen segurtasun urraketak azkar identifikatzeko?
- Aurreikusita duzu segurtasun urraketa mota bakoitzari aurre egiteko neurriak, interesdunen eskubideei eta askatasunei ekar diezaikeen arriskua neurtzeko prozedurak barne? Ezarri al duzu prozedurarik segurtasun urraketak jakinarazteko datuak babesteko agintaritzei, eta beharrezkoa bada, bai eta interesdunei ere?
- Ba al duzu erregistrorik edo antzeko beste tresnarik gertatzen diren segurtasun gorabeherak dokumentatzeko, nahiz eta datuak babesteko agintaritzei jakinarazi ez?
- Aztertu duzu ea egiten dituzun tratamenduek datu babesaren gaineko eraginari buruzko azterketarik behar duten, arrisku handia dakartelako interesdunen eskubide eta askatasunetarako?
- Eraginari buruzko azterketa egiteko metodologiarik ba al duzu?
- Egiten dituzun datu tratamenduak ikusita eta arriskuei buruzko azterketaren emaitza kontuan hartuta, datuak babesteko ordezkaria izendatu behar duzu?
- Erabakita duzu datuak babesteko ordezkaria aukeratzeko erabiliko dituzun irizpideak? eta, bereziki, trebetasun profesionalak eta ezagutza?
- Datuak babesteko ordezkariaren lanpostuak, zure erakundeetan nolako konfigurazioa duen ikusita, betetzen al ditu honako baldintzak: eginkizunak independentziaz betetzea, organigraman toki egokia, interes gatazkak ekiditea eta Erregelamenduak ezarritako baliabideak izatea eskura?

-
- Publiko egin duzu datuak babesteko ordezkariaren izendapena eta berarekin harremanetan jartzeko datuak? eta jakinarazi diozu datuak babesteko agintaritzari?
 - Ezarri al dituzu interesdunak datuak babesteko ordezkariarekin harremanetan jartzeko prozedurak?

10 EGIAZTAPEN ZERRENDA SINPLIFIKATUA

Zenbait kasutan, arduradun batzuek tratamendu kopuru mugatuak egiten dituzte. Halakoetan, aurreikusten bada interesdunen askatasunak eta eskubideak jasan dezaketen arriskua txikia dela, alderdi garrantzitsuenen balorazioa sinplifikatu dezakete, Erregelamendua behar bezala ezartzeko moduan daudela finkatzeko unean.

Enpresa txiki eta ertainetako (ETE) arduradunak izan daitezke askotan, nahiz eta organizazio handiagoak ere sar daitezkeen multzo honetan. Multzo honetakoa izateko adierazgarri erabakigarriena da zein datu tratamendu egiten duten. Multzoan egon daitezkeen enpresa dira organizazioko langileen, bezeroen eta hornitzaileen datu tratamenduak egiten dituztenak edo jabeen erkidegoen eginkizunei buruzko datu tratamenduak egiten dituzten erkidegoak.

Alde batera utzita organizazioaren tratamendua, hurbilketa hau sinplifikatua izanik, ez da baliokoa izango arrisku handiagoko tratamenduak egiten dituzten arduradunentzat, tratamendu motagatik (adibidez, profilak egitea), tratatutako datuengatik (adibidez, datu sentsibleak erabiltzea) edo erabilitako tratamendu baliabideengatik (adibidez, informazioaren azterketa masiboko teknologiak).

Egiaztapen-zerrendaren bertsio sinplifikatu hau ezartzeko, arduradunek berretsi egin behar dute, beste ezer baino lehen, arrisku gutxiko tratamenduak egiten dituztela eta tratamenduek ez dutela arriskua handitzeko moduko berezitasunik.

Hortik aurrera, azterketa egiteko honako alderdiak hartuko dira kontuan.

Egiten diren datu tratamenduen oinarri juridikoa identifikatzea

Normalean oinarrizko tratamenduen oinarrian interesdunaren edo arduradunaren arteko kontratu harreman bat egoten da edo interesdunaren adostasuna. Era berean, ohikoa izaten da arduradunak legezko betebeharrak izatea, adibidez, lan arloko legediaren esparruan, eta datu tratamendua horren arabera izatea. Beste batzuetan tratamenduaren oinarriaz arduradunaren interes legitimoa egon daiteke. Arduradunak ziurtatu behar du tratamendu guztiek dutela oinarri juridiko horietako bat.

Interesdunei ematen zaien informazioa egiaztatzea

Erregelamenduak agintzen du interesdunei lehen baino informazio gehiago emateko, egiten diren tratamenduen gainean. Arduradun guztiek bete behar dute gardentasun eginbehar hori, organizazioaren tamaina alde batera utzita. Horregatik, arduradunek ziurtatu behar dute behar duten informazio guztia dutela, eta interesdunei eman ahal izateko bitarteko egokiak dituztela ere bai. Hala ere, zerrenda sinplifikatu hau erabili behar duten arduradunek, egiten dituzten tratamenduak kontuan hartuz gero, ez dute alderdi batzuei buruz informatu beharrik izango, adibidez, datuak babesteko ordezkariaren harremanetarako datuei buruz edo erabaki automatizatuak hartzeari buruz.

Informazioa emateko era asko daude: web orrietan abisu-oharrak jartzea, inprimakietan edo informazio txarteletan abisuetarako lekua uztea. Horrez gain, informazio beste une batzuetan

ere eman ahal izango da, adibidez, langileen datuak biltzen direnean edo bezeroekin kontratatzeke datuak biltzen direnean.

Tratamendu-jardueren erregistro bat sortzea

Arduradunak aurreikusi behar du erregistro bat egotea eta bertan jaso direla Erregelamenduak agindutako eduki guztiak. Datuak Babesteko Erregistroan jakinarazitako fitxategiak baditu, arduradunak erregistroa antolatu egin dezake, tratamenduak lotuz fitxategiak jakinarazi zireneko helburuekin.

Interesdunen eskubideak egikaritzea

Arduradunak eskubideak egikaritzeko mekanismoak aurreikusi behar ditu eta eskubideak egikaritzeko eskabideen erantzunak ere bai. Erakunde bakoitzak erabakiko ditu mekanismoak, baina oso mekanismo sinpleak ere izan daitezke, adibidez, helbide elektronikoko bat ezartzea, operatiboa izango dena eta interesdunak identifikatzeko baliagarria izateaz gain, organizazioko pertsona bati esleituko diona jaso daitezkeen eskabide guztiak izapidetzeko ardura. Hala ere, garrantzi handia du mekanismo horiek, errazak izan arren, argi eta garbi finkatuta egotea. Eskubideak egikaritzeko modua ere interesdunei eman behar zaien informazioaren zati bat da.

Segurtasun neurriak identifikatzea

Segurtasun neurrien helburu behinenak dira informazioaren osotasuna bermatzea, informazioa berreskuratu ahal izatea segurtasun gorabeherarik egonez gero, eta informazioan baimenik gabeko sarbideak eragozteak. Horregatik, Erregelamenduak hainbat segurtasun neurri aurreikusten ditu, tratamenduen ezaugarrietara moldatu behar direnak edo tratatutako datu motetara edo unean-unean eskuragarri dagoen teknologietara.

Hasiera batean, interesdunen eskubide edo askatasunetarako arrisku txikiko tratamenduek ez dute behar egun DBLO garatzen duen Erregelamenduak ezartzen dituenak baino segurtasun-neurri gehiago oinarritzko mailarako. Arduradunak ziurtatu behar du neurri horiek benetan ezartzen direla, eta baloratu behar du ea egiten dituen tratamenduetarako bestelako segurtasun neurri osagarriak behar den, kontuan hartuta tratamenduak zein testuingurutan egiten diren edo zein motatako interesdunak dauden. Halakoetan, DBLO garatzen duen Erregelamenduan jasotako maila ertaineko neurriak erabil daitezke.

Tratamendu-eragileekiko harremanak egiaztatzea

Tratamenduaren arduradunak entitate bati agintzen badizkio operazio batzuk egiteko, adibidez, informazioa biltegitratzea edo lan batzuk egiteko datu pertsonalak erabiliz, esan daiteke zerbitzua ematen duen entitate hori tratamendu-eragilea dela.

Tratamenduaren arduradunaren zeregina izango da ondo ziurtatzea enkarguek enkargu-kontratu bat dutela atzean. Enkargu-kontratuen edukia ez da kontratatzen den zerbitzua arautzen duenaren eduki bera, beste bat baizik, nahiz eta horren zati bat izan daitekeen.

Horrez gain, egiaztatu beharko du zerbitzu-emaileekin dituen tratamendu-enkarguko kontratuek jasotzen dutela Erregelamenduak agindutako guztia, bereziki ziurtatuz eragileak bakar-bakarrik tratatuko dituela datuak arduradunak agindutako helburuetarako, eta segurtasun neurri egokiak ezarriko dituela eta tratatutako informazioaren gaineko konfidentzialtasuna zorrotz gordeko duela.

Batzuetan zerbitzu emaileak eskainiko du kontratu eredua. Halakoetan, arduradunak, kontratua izenpetzen duenean, argi eduki behar du kontratuaren edukia zena aurrerantzean tratamendurako jarraibideak izango direla, eta horien gaineko ardura hartu beharko du. Beste batzuetan arduradunak prestatuko du kontratu eredua. Halakoetan, gomendagarria da erabiltzea Europako Batzordeak onartutako ereduak edo datuak babesteko agintaritzek aurkeztutakoak.

- ❖ **AEPD tresna bereziak garatzen ari da laguntzeko halako erakundeei (bereziki mikro-ETEI eta ETEi) baloratzen ea arrisku txikia dagoen eta betetzen esandako betekizun guztiak. Tresna horiek eskuragarri egongo dira AEPDren web orrian.**